

FORMULAZIO-GIDA BAT EBALUATZEKO ERRUBRIKA

ALDERDIAK	4 BIKAIN	3 ONGI	2 HOBETU DAITEKE	1 GUTXIEGI
Azala	Bereziki ahalegindu da azalaren diseinuan. Azalak elementu grafikoak ditu, izenburuaz gain.	Azalaren diseinua zaindu du. Azalean izenburua ageri da, elementu grafikorik gabe.	Arreta gutxi eskaini dio azalaren diseinuari, izenburua osatu gabe baitago.	Turismo-gidak ez du azalik, edo ez zaio arretarik eskaini azalaren diseinuari.
Sarrera	Azalaren ondoren sarrera bat ageri da, gida zertan datzan argi eta garbi azaltzen duena.	Azalaren ondoren sarrera bat ageri da, gida zertan datzan argi eta garbi azaltzen ez duena.	Azalaren ondoren sarrera bat ageri da, baina ez du azaltzen gida zertan datzan.	Ez dago sarrerarik azalaren ondoren.
Plangintza	Argi eta garbi aurkezten da aztertuko diren konposatu desberdinen ibilbidea: sarrera, oxigenoaren eta hidrogenoaren konposatu bitarrak, gatz bitarrak eta hidroxidoak.	Ibilbide nahasia aurkezten da, ordenarik eta plangintzarik gabe tratatu beharreko konposatu guztiei dagokienez.	Aurkeztutako ibilbideak ez ditu aurkezten agertu beharko luketen konposatu guztiak.	Aurkeztutako ibilbideak gabezia handiak ditu aurkeztutako konposatuen azalpenei dagokienez.
Elementu grafikoak	Azalpenetan erabilitako elementu grafikoak hautatuak izan dira.	Gidarekin batera ageri diren elementu grafikoak nahikoa trebetasunez hautatu dira.	Gidarekin batera ageri diren elementu grafikoak ez dira nahikoak kantitateari edo kalitateari dagokienez.	Gidak ez du elementu grafikorik, edo agertzen diren elementuek ez diote ia ekarpenik egiten erantsitako testuari.
Aurkezpena	Erabilitako tipografia egokia eta irakurgarria da, eta diseinu orokorra oso erakargarria da.	Erabilitako tipografia zuzena eta irakurgarria da. Marjinak errespetatzen dira, eta aurkezpena, oro har, zaindua da.	Tipografia ez da oso egokia edo marjinak ez dira errespetatzen. Oro har, aurkezpena ez da behar bezain zaindua.	Aurkezpena ez da batere zaindua. Tipografia ez da oso egokia, eta marjinak ez dira errespetatzen.
Idazkera eta hizkuntza zientifikoa	Testua kontu handiz idatzita dago, koherentziaz, kohesioarekin, hizkuntza behar bezala egokituta eta hizkuntza zientifiko egokia erabiliz.	Testua nahiko kontuz idatzita dago, koherentziaz, kohesioarekin eta hizkuntza zientifiko egokiarekin.	Testua nahiko narras idatzita dago. Testuan koherentziari, kohesioari edo hizkuntza zientifikoaren egokitasunari lotutako arazoak nabaritzen dira.	Ez zaio inolako arretarik eskaini gidan agertzen den testuaren erredakzioari. Horregatik, koherentziari, kohesioari, hizkuntza zientifikoaren egokitasunari eta hizkuntza-egokitzapenei lotutako arazo larriak nabaritzen dira testuan.

